

Esleitu dituzte 2016-2017 ikasturteko Master Ofizialetako Ikerketa Bekak

2016/12/19

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Doktorego Batzordeak eman du jakitera 2016-2017 ikasturteko Master Ofizialetako Ikerketa Beken onuradunak. 2016ko abenduaren 15ean egindako bileran, eta deialdian zehaztutako ebaluazio-irizpideak aintzat hartuta, hauxek dira beka horiek irabazi dituzten ikasleak eta proiektuak:

- **Letizia Garcia Fernandez:** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikasleen euskararen erabilera sustatzeko diagnosis. (Ikertzaile nagusia: Nekane Arratibel).
- **Miren Rico Tolosa:** Aniztasunaren erronka gure eskoletan: hizkuntza, kultura eta maila sozio-ekonomikoa. (Ikertzaile nagusia: Amelia Barquin).
- **Maria Azkarate Garcia:** Online graduen berrikuntzaren gaineko ikerketa. (Ikertzaile nagusia: Nagore Ipiña).
- **Ane Karetxe Balantzategi:** Haur Hezkuntzan Berrikuntza: Irakaslearen Rola. (Ikertzaile nagusia: Alex Barandiaran).

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 10 beka emateko asmoa zuen baina, eskaera nahikorik jaso ez denez, hutsik geratu dira zenbait ikerketa proiektu .



Masterretako ikasleak aurkezpen egunean.